



Helduekin batera delitu egin duten adingabeak haiekin epaituko dituzte

Espainiako Gobernuak Adingabeen Legearen erreforma egin nahi du, helduak eta adingabeak tartean dauden delitu larrietan, guztiak elkarrekin ikertuak eta epaituak izan daitezten.

Hala iragarri du Ruiz-Gallardon Justizia ministroak Kongresuan egin duen agerraldian.

Bertan erreformak ez duela adingabeen eskubideen murrizketarik eragingo ziurtatu du.

Erreformak Marta del Castilloren auzia bezalako kasuei eragingo die, izan ere, "El Cuco" ezizenaz ezaguna den adingabea bereizirik epaitua izan zen. 2004ko martxoaren 11ko atentatuetan ere, adingabe bat zegoen nahasita.

Jaurlaritzak haur lapurtuen auzia koordinatzeko batzordea osatu du

Eusko Jaurlaritzak haur lapurtuen auzian koordinatzeko batzordea sortu du, Inez Ibañez de Maeztu Giza Eskubideen zuzendariaren ardurapean. Ibañez de Maeztu Juan Kalparsoro Euskadiko Justizia Epaitegi Goreneko fiskal nagusiarekin bildu dira orain arte salatu diren kasuak aztertzeko.

Kalparsorok esan du Gipuzkoak 126 salaketa izan direla eta horietatik bederatzia artxibatu dituztela; besteak ikertzen ari dira. Araban 31 izan dira salaketak eta Bizkaian, 74; azken horietatik 21 artxibatu dituzte.

5.273.600 langabe Espainian

577.000 langabe gehiago izan zen 2011an Espainian. Hori dela eta, urte amaierako beharginen kopurua 17.807.500ean geratu zuen.

Joan den urte amaieran, 5.273.600 langabe zeuden, 2010ekoan baino 295.300 gehiago. Egun, Europako Batasuneko 27 herrialdeen artean Espainian dago langabeziarik handiena; %22,85ekoa dago. 1995ean %23,49koa egon zen

Euskadiko lurraldeei dagokienean, aurreko hiruhilekotik Gipuzkoan baino ez da murriztu langabezia.

- Araba. 2011 bukaeran 18.000 langabe (aurreko hiruhilekotik +1.900).
- Bizkaia. 2011 bukaeran 79.500 langabe (aurreko hiruhilekotik +3.500).
- Gipuzkoa. 2011 bukaeran 36.000 langabe (aurreko hiruhilekotik -1.000).

Etxeko senide guztiak langabezian duten etxe kopurua 1.575.000 izan zen iaz. Zerbitzuetan eta industrian egin zuen gora gehien; halere, nekazaritzan eta eraikuntzan jaitsi zen 2011an.

PIP protesiak egiten zituen enpresaren sortzailea atxilotu dute

Frantziako Poliziak Jean-Claude Mas Florent Poly Implant Prothese (PIP) enpresaren jabea atxilotu du mundu osoan

silikonazko bularreko inplante akastunak saltzeagatik, polizia-iturriek jakitera eman dutenez. Interpol nazioarteko polizia agentziak "alerta gorria" ezarri zuen inplanteen arriskuagatik eta Florentez gain, enpresako beste bazkide bat ere atxilotu dute.



DBHri urtebete kenduko diote batxilergoak beste ikasturte bat izan dezan

Batxilergoa hiru urtekoa izango dela berretsi du Espainiako Gobernuak eta urtebete kenduko dio DBHri. Nolanahi ere, aldaketa horrek ez du eraginik izango derrigorrezko eskola aldian: 16 urtera arte nahitaez joan beharko dute gaztetxoek eskolara, orain arte bezala. Hori berretsi du Jose Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak. Aurten bertan onartu nahi du lege aldaketa hori.

Robot bat 'Guernica' koadroaren barruan sartuko da


Madrilgo Reina Sofia museoak aurrea hartu nahi dio 'Guernica' margolanaren zaharkitzeari. Horretarako, inoiz ez bezalako azterketa egingo diote, puntako aurrerapen teknologikoak erabilita. Museoak 'Guernicaren barrura bidaiatzea' egitasmoa jarri du martxan eta Picassoren margolanaren tamaina kontuan hartuta, teknika berritzailea erabiliko du. Helburua lanari azterketa sakona egitea da datorren ekainera arte, horretarako diseinatu duten azken belaunaldiko robot batekin, margolanaren zaintze eta mantentze lanak errazte aldera.

43. Bertsu Eguna larunbatean Donostian

Dominoa jolaserako da, baina larunbatean, katurako aitzakia izango da. Edo, hobeto esanda, saioa bera bideratzeko erabiliko dute. Domino pieza bat, bi eta bost zenbakiak dituena. 25. Zenbaki horren bueltan ariko dira 25 bertsolariak, Kurasaalean. Izan ere, Bertsozale Elkarteak 25. urteurrena ospatzen ari da.

Igandera arte Antonio Lopezen lanak Bilbon ikusteko

Igandean itxiko dute Antonio Lopezen erakusketa Bilboko Arte Ederren Museoan. Tomellosoko artistaren 130 margolan, marrazki eta eskultura biltzen ditu. 1953 eta 2011 bitartean sortutako artelanak dira.



Hauxe de Bilboko Inauteriak iragarriko dituen kartela, Jon Ondavillak eta Amaia Benitok egindakoa.

Ardiei ilea moztea modalitate olinpiko izatea nahi du Zeelanda Berriak

Zeelanda Berriko baserritarren elkarteak ardiei ilea moztea kirol modalitate izatea eskatu du eta nazioarteko probetan, Olinpiar Jokoetan esaterako, kontuan hartzea nahi dute.



Bi hilabete barru, uharterko iparraldeko Masterton hirian ardiei ilea mozteko munduko txapelketa egingo dute. Bertan, parte-hartzaile bakoitzak zortzi ordutan 700 ardiri moztu beharko dio ilea.

Munduko errekorra Ivan Scott irlandarrak du: zortzi ordutan 749 ardiri moztu zion ilea. Emakumezkoetan, ordea, Kerri-Jo Huia zeelandaberritarrek du errekorra; denbora berean, 507 ardiri moztu zion ilea.

Zeelanda Berrian, 4,4 milioi biztanle bizi dira eta 40 milioi ardi daude. Animalia horiek haztea eta horien haragia ustiatzea jarduera ekonomiko oso garrantzitsua da bertan.

EGUNA ETA ORDUA Mirandes eta Athleticen arteko joaneko partida, Kopako finalerdietako neurketa, urtarrilaren 31an, 22:00etan jokatuko da Anduva futbol zelaian. Athleticek bere 43. finalerdia jokatuko du Errege Kopan Mallorca kanporatu ostean. Zuri-gorriek joaneko partidaren 2-0koa on egin dute final-laurdenetan, izan ere, 0-1 irabazi zuten itzuliko neurketan, asteazkenean.



SCIENCE AND TECHNOLOGY

The cuts also come electric cars. Citroën and Peugeot have announced a 16% drop in the prices of the two models they sell. The Citroën C-Zero and the Peugeot iOn spend 29,146 euros cost including taxes, compared to EUR 34,870 marking the current rate until 31 December. With the aid for the purchase of electric cars set by the government, prices remain at 23,551 euros.



EGURALDIA

Zerua hodeitsu egongo da. Prezipitazioak izango dira eta trumoi-ekaitzak botatzeko eta txingorra egiteko probabilitatea handia da. Ipar haizea ibiliko da. Tenperaturaren ez da aldaketa handirik izango.